

LEGE BILTZARREKO AGERRALDIA

2023ko ekainaren 12a

Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik! duela gutxi sortu da. Aiaraaldeko ikastetxe publiko guztion indarrak batzeko premia izan dugu, hezkuntza publikoak azken denboran pairatu dituen erasoei aurre egiteko. Urduña, Amurrio, Aiara, Artziniega, Okondo, Laudio, Orozko eta Aretako ikastetxeetako hezkuntza komunitateak batu gara hain zuzen.

Egoera hau ez da berria, duela 2 urte, 2021ean, Amurrioko Zabaleko ikastetxea ixteko saiakera, tentsio eta urduritasun handiz bizi izan zen gure eskualdean. Gizarte mugimenduari esker gelditu genuen asmo hori, halere Zabaleko ikastetxea ixteko mehatxua ez da desagertu.

2022an, Amurrioko Mendiko eskolan matrikula bat beste ikastetxe batera desbideratu ostean, eskolako 3 urtekoen lerro bat itxi zuten, 23 umerekin lerro bakarra eta masifikatua utzita.

Apirilean Aretako Fabian Legorburu ikastetxeak berri txarra jaso zuen, hurrengo ikasturterako 2 urtekoen gelarik ez zela irekiko, horrek dakarrenarekin, Aretako eskola publikoaren etorkizuna kolokan jarrita. Eta ez dezagun ahaztu auzoaren eta herriaren arima direla, topagunea.

Zenbat bider entzuten dugun zero kilometroak, tokikoak, duen garrantzia, eta horixe zero kilometroa zure auzoko eskolara joan eta ez zure inguruetik, zure herritik zenbait kilometrotara ateratzea ikasteko eta hartu-emanak izateko.

Ostera ere, gizarte mugimenduari zor diogu erabaki hau atzera bota izana. Datorren ikasturterako konponbidea adostu da, baina hortik aurrera zer?

Egoera berean izango gara eta ez dugu inolako bermerik arduradun politikoen eskutik.

Hurrengo ikasturteari begira, Laudioko Lamuza Eskolak eta Amurrioko Zabaleko ikastetxeak ikusi dute zelan *Otsailaren 28ko, 2023/30 EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeen sarea antolatze*ko eta *planifikatze*ko irizpideak ezartzen dituen Dekretuaren arabera, eta zaurgarritasun indizea aitzaki, 2 matrikula desbideratu dira, itunpeko 2 ikastetxetara. Kasu bietan eskatutako eskola publikoan lekua egonda eta familiaren nahia eskola publikoan matrikulatzea izanda.

Lamuza Eskolan, ikastetxean bertan neba/arreba bat duenez egoera zuzendu ahal izan da. Zabalekon berriz, hasierako erabakiari eutsi dio departamentuak, familiak zein ikastetxeak berak egindako eskaerari muzin eginez. Eskaeraren aurrean departamentuak erantzun zuen dekretua betetzen ari zela. Hau dela eta, ezin izan da gela berririk ireki, desbideratu den matrikula horrek gela horren bikoizketa baitzekarren.

Aiaraldeko ikastetxe publikoetako hezkuntza komunitateko kideon, herritarron, ustez aipatutako egoera hauek guztiek eskualdeko sare publikoa ahultzen dute. Erasoak anitzak izan badira ere, guk bat eginda jarraituko dugu elkarlanean, Hezkuntza Publikoa benetan gure hezkuntza sistemaren ardatza izan dadin eta ez subsidiarioa.

Egunero bizi ditugun oztopei buruz, aritu ahal izango ginen, eraikin eta azpiegituren egoerari buruz adibidez, baina ez genuen astirik izango aipatu nahi ditugun beste gai batzuk azaltzeko.

Ni, Lamuza Eskolako komunitateko kidea naiz, eskola txikia gara, Laudioko erdigunean kokatuta, Gure eskolako familien %90 jatorriz atzerritarrak dira. Gurasoen elkarteko kidea naiz. Duela 2 urte gurasoen elkarteko bazkidetza kuota kentzea erabaki genuen eta antolatzen ditugun eskolaz kanpoko ekimenak debalde dira.

Gure ustez, neurri hauek lagungarriak dira ikasleen arteko desberdintasunei aurre egiteko, esfortzu handia gure aldetik, baina helburu argia duguna: ez dadila inongo umea ekimen hauetan parte hartu gabe geratu euren gurasoek ezin dutelako ordaindu.

Hezkuntza komunitate honetako kide izatea gakoa izan da dudan gizarte-sentsibilitatea areagotzeko, elkarbizitza kulturartekotasunetik izateak aberastu nau eta nire ikuspegia zabaldu du, gizakiok arrazistak (eta aurreiritziz beterikoak) garela jabetzeko baliagarria izan zait eta arrazismoa nigan ere badagoela.

Eskolan zein hezkuntza komunitatean bizi dugun segregazioaren aurrean, baliabideak eta neurriak ezinbestekoak dira.

Datuek esaten digute Euskal Herriak Espainiar estatuarekin alderatuta, segregazio tasarik handienetakoa duela. Hezkuntza departamentuak berak Bartzelonako Unibertsitate Autonomoari txosten bat eskatu zion Euskal Herriko eskola segregazioaren maparen inguruan. Txosten horren ondorioetariko bat da “Itunpeko ikastetxeen presentziak eragina duela eskola segregazioa berezeki altua izan dadin barruti edo auzo baten barruan”.

Itunpeko eskolak, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren txostenaren arabera, eskola segregazioaren tasa areagotzen du eta itunpeko eskola hori da “**euskal hezkuntza-zerbitzu publikoaren**” aterkipean eskola publikoaren maila berean jarri nahi dena. Unibertsala eta publikoa, eskola publikoa baino ez da.

2023/30 dekretuak sistema egituratzen du, zaugarritasunaren bitartez, zaugarri moduan etiketatzen diren ikasleak ikastetxe desberdinetan banatzeko, eta horrela ekiditea ikastetxe gutxi batzuetan ikasle hauek guztiak biltzea.

Dekretu honen segregazioaren kontrako tresna bakarra galdetegi bat izan da, galdetegi honen baremoak ez dira ezagutzen. Halaber, ez ditugu ezagutzen galdetegi hau prestatzeko erabilitako irizpideak, zaugarri moduan familiak sailkatzeko.

Hezkuntza departamentuari galdetu diogu eta ez da erantzunik egon edo erantzuna egon denean “ez dakit” izan da.

Berriro ere gutxien daukana baztertu eta estigmatizatu egiten da eta beste batzuek euren lekuan erabakitzen dute, ez zaie erabakitzeke gaitasunik ematen.

Edozein kasutan, familia bat zaurgarri moduan sailkatua izan denean, horrek ez dio duintasuna kendu behar, ezta euren seme-alabentzat hezkuntza publikoa aukeratzeko eskubidea kendu ere.

Pasa den otsailean, Adarra Pedagogi Erakundeak antolatutako **“Redistribución forzosa o calidad educativa para superar la segregación”** izeneko jardunaldiaren ondorioak hitzez hitz aipatuko ditugu: *“las evidencias científicas de impacto social muestran que para hacer frente a la segregación con eficiencia es fundamental que el eje de las intervenciones sea la mejora de los resultados académicos y de la convivencia en los centros, no la distribución forzada. En países como Estados Unidos, Reino Unido o Cataluña, hay investigaciones que demuestran claramente que la distribución forzada o redistribución es una medida perjudicial para el alumnado y para la sociedad en general. La distribución forzada ha generado en esos países citados el aumento de actitudes racistas, incluso ataques, así como el aumento de la hostilidad contra el alumnado más vulnerable. La redistribución forzosa perjudica a la escuela pública porque la estigmatiza y si se sigue difundiendo la falsa idea de que con el alumnado catalogado como vulnerable no es posible una educación de calidad se esta poniendo en cuestión la calidad de la escuela pública en sí. La redistribución señala al alumnado en situación de vulnerabilidad como problema “que hay que repartir”, y al que se fuerza a ir a un centro determinado; se definen así ciudadanos y ciudadanas de primera y de segunda categoría, o lo que es lo mismo, se decide quién tiene derecho a elegir centro y quién no; pero además la distribución forzada no mejora los resultados académicos del alumnado desplazado y fomenta el abandono escolar. Un ghetto desaparece cuando se aplican las mejores evidencias*

científicas ya que mejoran los resultados académicos y la convivencia, independientemente del tipo de alumnado que lo componga. Cuando un centro segregado se transforma, produce un impacto positivo en la comunidad y crea un efecto llamada, de tal manera que muchas familias quieren llevar a sus hijas/os allí y así se consigue diversidad. Cuando el alumnado de medio social más desfavorecido está más repartido y siguen sin aplicarse las actuaciones educativas de éxito, siguen teniendo las mismas dificultades. Sigue todo igual, pero en cada escuela pasa más desapercibido, se ve menos, pero no se soluciona”.

Guk argi dugu, eskola publikoa da bermatzen duena dena eta denontzako eskola. Eskola Publikoan ez dago inor soberan. Euskal hezkuntza sistema publikoa bermatuko duen hezkuntza legea nahi eta behar dugu eta ez egungo sistema duala, publiko-pribatua betiketuko duen legea.

Zaurgarritasun egoeran dauden familia kopurua handiagoa den ikastetxe publikoetan, bertoko hezkuntza komunitateko kideok zer behar dugu?

Guri galdetzea zeintzuk diren gure beharrianak eta egon seguru, erantzuna ez dela izango ikasle batzuk beste ikastetxe batzuetara desbideratzea. Baliabideak eta aukerak behar ditugu, erakunde publikoen aldetik babesa. Ikasle hauek kromoak bailiran banatzea, euren ingurune soziala, euren egoera ezagutu barik hori ez da konponbidea. Gizalegezko tratua behar dute, edozeinek bezala, bestela arazoa larriagotuko da.

Interesgarria litzateke jakitea zaurgarri moduan etiketatu diren familietan zenbatek duten jatorri atzerritarra. Kulturartekotasun inguru erreal batean elkarbizitza egiten dugunok egunez egun, ikusi eta baita ulertu ere egiten dugu, gure herrietara heltzen diren familiak, seme-alabak matrikulatzeko unean, euren komunitatea topatuko duten ikastetxeak aukeratuko dituztela.

Ez dugu uste hori txarra denik, guk haien egoera berean gauza bera egingo genuen eta. Babesa nahi dugu, aldez aurretik aipatutako jardunaldien ondorioetan islatu den bezala, ikastetxe erakargarriak bihurtzeko, aurreiritziak

apurtzeko eta horrela familia gehiagok gure hezkuntza komunitatearen parte bihurtu nahi izango dute.

Azaldutako guztia kontuan izanda, sinestuta gaude ez direla neurri egokiak hartzen ari segregazioari amaiera emateko eta pertsona zaugarrien inklusioan laguntzeko.

Legearen garapena eta erredakzioaren arduradunek, eta hau babesten duten alderdiek, ez dituzte kontuan izan ikerketak eta entzungor egin diete **HEIZE, EHIGE, Plataformek eta sindikatuek** egindako ekarpenei.

Aipatutakoak hezkuntza lege honen aurka daude.

Baina benetako interesa bestelakoa da. Jaiotze tasaren jaitsieraren eraginez datozen urteetarako gelen eta eskolen itxiera aurreikusten da. Lege honen bitartez ikastetxe publikoak eta itunpekoak maila berean jarri nahi dira eta interesa dago ikastetxe pribatuak blindatzeko.

Hezkuntza legearen proiektuaren 25. artikulua argi adierazten du lege honen norabidea, **euskal hezkuntza-zerbitzu publikoa** aipatzen duena hain zuzen. Gure ustez, definizio horrek publikotasun kontzeptuari iruzur egiten dio. Ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuak parekatzen ditu, maila berean jartzen ditu eta horrek ez du inondik inora eskola publikoa erdigunean jartzen, edo gure hezkuntza sistemaren ardatz bihurtzen.

Euskal hezkuntza-zerbitzu publikoaren definizioa itunpeko ikastetxeen aspaldiko eskaera betetzera dator, zerbitzu beraren aurrean finantziazio berdina. Hemerotekara jo eta arin topatuko duzue esandakoa. Hezkuntza publikoak, eskola publikoak baino ez du bermatzen ikasle guztien sarbide unibertsala. Gure herriko anbulatorioek bermatzen duten moduan edozein herritar artatzea.

Beraz, ez dezagun gaizki erabili publiko hitza. **Hezkuntza publikoa unibertsala, denona eta denontzat dugu, inklusiboa, berdinzalea.** Eskola publikoak baino ez die eskaintzen **aukera berdintasuna ikasle guztiei.**

Halaber, maila berean jartzea eskola publikoa eta itunpekoak ikastetxeen arteko lehiara garamatza, eta abiapuntua ez da berbera. Hezkuntza publikoa berriro ere desabantaila egoeran kokatzen du, ikastetxe pribatuekin ezin baitu lehiatu. Begirada bat bota batzuen instalazioei, baliabideei eta gure auzo eskoletako baliabideei, eta erraz igerriko duzue aldea. Gure eskualdean ikastetxe publikoen eraikinek inbertsio handiak behar dituzte, jantokietako eredua, haietariko gehienek ez dute aisialdirako jolas-leku estalia...

Eskola publiko guztietan catering bitartez ematen dute jantoki zerbitzua eta, jakina da, ikastetxeek jantokiaren kudeaketaren autonomia galdu zutenetik kalitateak okerrera egin zuela. Sarritan, enpresen etekinak da helburu nagusia. Eskola batzuek aspaldi batean herrian bertan elikagaiak erosteko eta sasoiko produktuak konfidantzazko lekuetan erosteko aukera zuten baina hori guztia galdu zen eta enpresa handien menpe geratu da.

2. kapituluko 2. artikuluko "h" atalak, honakoak aipatzen ditu: gaitasun sozio-emozionalak garatzea, ohitura osasungarriak sustatzea, elikadura orekatua eta arduratsua sustatzea. Helburu hauek betetzetik urrun gaude egungo jantoki ereduarekin.

Gutxitan izaten dugu jangela propioa izateko aukera, baldintzak ezinezkoak direlako, eta ezin dugulako gure jantoki eredua aukeratu, bertakoa, ekologikoa eta zero kilometro produktuekin.

Desabantaila honek kalte bikoitza sortzen du, zenbait familiak eskola pribatura jotzea eragiten du egoera honen aurrean.

Baina ez pentsa horrek aldentzen gaituenik gure auzoko eskolatik, sinestuta gaude, gure seme-alaba/ikasleentzat... **lekurik egokiena auzoko eskola publikoa dela**, sarritan eskola txikia.

Ez ditugu ikastetxe publiko handi eta masifikatuak nahi, eskola txikiak, auzo eskolak kalitatearen berme dira.

Lege honen garapenarekin eta azken hilabeteotan pairatu ditugun murrizketekin etorkizuna hori izan daitekeela aurreikusten dugu, herrietan eskola txikiak itxi eta eskola publiko handi masifikatuak lehenestu. Auzoan bertan hazi eta hezi dira gure umeak, gure komunitatearen parte dira, horixe zero kilometroa. Baina “euskal hezkuntza-zerbitzu publikoa”ren arabera maila berean daude, auzoko eskola publikoa ikasle guztiak jasotzen dituen edo herritik zenbait kilometrotara dagoen ikastetxe pribatua.

Horren adibide ditugu, Amurrioko Zabaleko ikastetxea eta Aretako eskola, hauen itxierak auzo hauen bizitza kaltetuko zuen, lo-auzoak bihurtuko ziren eta Komunitatearen bizitza soziala, harremanak izugarri kaltetuko ziren.

Azken hilabeteotan argi ikusten ari gara, zein norabidetan doan gure hezkuntza sistema publikoa. Publiko hitza urardotu nahi duzue.

Ikusten ari gara zelan duela urtebete gure eskualdean eskola bat itxi nahi zenuten (Amurrioko Zabaleko), zelan beste eskola batean (Aretako Eskola) 2 urteko gela itxi nahi zenuten horrek dakarrenarekin, zelan Zabaleko ikastetxeko ikasle bat ezin matrikulatu 2 urtekoen gelan eta derrigorrean erlijio ikastetxe batera joan behar duen...

Eskola publikoa aukeratu eta erlijio ikastetxe batean amaitu, horrek izen bakarra du, pribatizazioa!.

Eskualdeko eskola publikoa ahultzen dute erabaki hauek guztiek.

Bestalde, 66. Artikuluak dioena ere kezkatzen gaitu oso. Gure hezkuntza sisteman euskarak izango duen lekua. Batetik, azken hilabeteotan entzun dugu zelan proposamen honen aurrean irakurketa guztiz desberdinak egiten diren lege aurreproiektu hau babestu duzuenon aldetik. Batzuen ustez hezkuntza ereduak desagertu dira, beste batzuen ustez ez dago inolako aldaketarik

ereduei dagokionez. Kezkagarria!. Legearen arabera ikastetxe bakoitzak testuinguruaren arabera, bere hizkuntza proiektua erabakiko du, Maiatzaren 31ko hezkuntza batzordean sailburuak esandakoaren arabera. .

Euskara ardatz duen sistema eleaniztuna aipatzen da baina, sailburuak berak aipatu bezala lege honek ahalbidetuko du ikastetxe batean esaterako, ia irakastordu guztiak gaztelaniaz ematea gero bestelako neurriak hartzen badira. 1983tik hizkuntza ereduen sistema dugu arautua eta abian, A ,B eta D ereduak hain zuzen ere.

Jakina da, gaur egun eskola publikoaren matrikulazioan D eredia erabat nagusi dugula. D ereduko ikasleek 3tik 2k lortu dute zegokien hizkuntzen maila, B eredukoek 3tik batek. Beraz, ez dago zalantzarik gure hezkuntza sisteman zelan lortu den milaka eta milaka ikasle euskalduntzea.

Baina Lege proiektu honen arabera litekeena da ikastetxe batek irakastordu gutxiago ematea euskaraz eta aldi berean, DBH amaitutakoan B2 eskuratzea.

Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik! plataformako kide batzuk 20 urte baino gehiago daramatzagu eskola publikoan lanean eta horrelakorik ez dugu ikusi, irakastordu gutxiago euskaraz eta emaitza hobeak lortu. Hori ez da posible.

Euskara eta euskal kulturaren alde egiten duela proiektu honek adierazi zuen batzorde honetako kide batek maiatzaren 31n. Guk zalantzarik ez dugu, kontrako norabidean dagoela lege honetan.

Murgiltze ereduaren bitartez gure hezkuntza sistemak urte hauetan lortu duena kontuan izan behar dugu eta batez ere, **euskal eskola publikoak lortu duena. D ereduko ikasleak 3tik bi eskola publikoan ari dira.** Berriro ere euskara galtzaile.

Euskalduntzean atzerapausoa izango da lege hau. Eta Euskalgintzaren Kontseiluak, euskararen normalizazioaren aldeko gizarte eragileak biltzen

dituen erakunde garrantzitsuenak, Hezkuntza legearen proiektuak euskara gehiago behar duela adierazi du.

Hezkuntza legearen proiektuaren inguruan eragile askoren iritzia ari zarete jasotzen, 2021eko amaieran hezkuntza legeaz sorturiko ponentziatik 100 eragile, kolektibo edo pertsona. Baina hortik sortu zen dokumentua aztertzerakoan, lege berrirako oinarriak, **Eskola Publikoko eragile nagusiek** (HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza elkarten Federazioa, EHIGE Euskal herriko ikasleen gurasoen elkartea) **argi eta garbi adierazi zuten eskola publikoa osatzen dugunon desadostasuna.**

Laburbilduz, behin eta berriro ari gara esaten, hezkuntza publikoaren hondatzea eta debaluazioa ari da ematen eta horrek kalte egiten dio gure seme-alabek, ikasleek, irakasleek, langileek, funtsean gure gizarteak merezi duen hezkuntza kalitateari. Eskatzen ari gara ez da zentzugabea, gizarte hobea nahi dugu, baloreetan oinarrituta, berdinzalea, euskalduna, laikoa eta hezkuntza publikoa oinarri duena helburu hauek lortzeko, balore hauek lortzeko eskola publikoa da berme bakarra.

Eragile asko igarotzea legebiltzar honetatik ez du esan nahi prozesu partehartzailea denik, hasierako asmoari eusten badiozue, egungo hezkuntza sistema duala indartu hezkuntza sistema publikoaren kalterako, entzuketa ariketa egin duzue baina ez prozesu partehartzailea.

Ahalegina eskatzen dizuegu gure proposamenak benetan kontuan izateko, hezkuntza komunitateko pertsona askoren ordezkariak gara eta espero dugu parte-hartze hau tramite hutsa ez izatea. Etorkizuna jokoan dugu.

Espero dugu, oraingoan Eskola Publikoa, hezkuntza publikoa osatzen dugunon ekarpena jasotzea, eskola publikoa gure hezkuntza sistemaren ardatza izatea, jendarte inklusiboagoa, berdinzaleagoa, euskaldunagoa eta garrantzitsua dena, ikasle guztiek aukera berdintasuna eduki ahal izateko.

Aiaraldeko hezkuntza publikoko komunitateak jarraituko du lanean eta gure eskualdeko eskola publikoen babesean aterako gara edozein murrizketaren aurrean, egoera honek alde positiboa ere izan du, bakoitza bere eskolatik haratago ikustea, eskolen arteko lehiak gainditzea eta orain inoiz baino gehiago harro gaude Aiaraldeko eskola publikoko kideak izateaz.

Gora euskal eskola publikoa!

Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik!